

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILAAdministrazio eta Lurralde Plagintzaren
Sailburuordetza*Zerbitzu Zuzendaritza*DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y
POLÍTICA TERRITORIALViceconsejería de Administración y
Planificación Territorial*Dirección de Servicios*

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO PORTUEN ETA ITSAS GARRAIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA

I.- SARRERA

Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak erreferentziazko lege-aurreproiektua igorri du, izapidetzeko.

Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 8. artikuluan Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako funtzioei jarraiki eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoa betez igorri du txosten hau.

Txostenaren xedea "Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege-aurreproiektua" legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren aztertzea da. Azterketa horretan, halaber, kontuan hartuko da araudi-teknikako jarraibideen betetzea, eta, bereziki, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak lantzeko jarraibideak onartzen dituen 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen duen Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomiaren Garapeneko sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko Aginduaren betetzea. Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikulua betetzea balioetsiko da (hizkuntzaren erabilera ez-sexista eskatzen du artikulua horrek). Halaber, ekimenaren ondorengo izapideak finkatuko dira.

II.- ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK

a) Espedientearen edukia

Espedientean, honako dokumentazio hau dago bilduta:

- Espedientearen hasierari buruzko sailburuaren Agindua
- Aldez aurreko onarpenari buruzko sailburuaren Agindua, Lege Aurreproiektuaren testua erantsita duena.
- Justifikazio-memoria
- Generoaren araberrako eraginari buruzko txostena

Lege Aurreproiektuaren izapideei hasiera ematen dien Aginduan, interes orokorrekoak ez diren portuen arloan legeak egiteko eta betearazteko erabateko eskumena dagoelako justifikatzen da ekimena. Dena dela, aurreko legegintzaldietan egindako ahaleginak gorabehera, eskumen horrekin batera ez da onartu arlo hori arautuko duen lege-mailako araurik. Agindu horretan, halaber, ekimenaren edukia zehazten da.

Bestalde, justifikazio-memorian Aurreproiektuaren zioen azalpena garatzen da, eta, zenbaitetan, testu arauemailea lantzean egindako aukeren justifikazioa zabaltzen da.

Generoaren araberrako eraginari buruzko txostenean, hainbat baliabide (hala nola prestakuntza akademikoa, lan-egoera eta euskal titulartasuneko portuetako zerbitzu-eremuaren eta portu horietan ematen diren portu-zerbitzuen erabilera) emakumeen eta gizonen artean nola banatuta dauden aztertzen da, eta emakumeek eta gizonen eremuko organo, erakunde eta enpresetan duten gizarte- eta lan-arloko parte-hartzeari buruzko datuak ematen dira.

Bestalde, Aurreproiektuak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko biltzen dituen neurrien artean, 6.3 artikuluan bildutako jardun-printzipioa identifikatzen du txostenak. Artikulu horrek ezartzen duenez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko portuen kudeaketa hauek bideratuko dute: batetik, portuen erabiltzaile gisa, herritarren interesak babesteko printzipioei errespetua izateak, bereziki ezintasuna duten edo mugikortasuna mugaturik duten pertsonen kasuan, portuetako zerbitzuak kalitate-baldintzetan eskuratzeko eskubidea bermatuz; bestetik, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdinak emateko printzipioei errespetua izateak”*.

b) Eskumena

Aurreproiektuaren justifikazio-memoriak agerian uzten duenez, ez da portuen lege bat onartu nahi den lehen aldia, eta, aurreko aldietan, Gobernu Kontseiluak Lege Proiektua onartzeraino iritsi ziren izapideak.

Horrela, beraz, Autonomia Erkidegoak arlo horretan duen eskumenari eta horren mugaketari (Estatuarekiko, lurralde historikoekiko eta udalerriekiko) lotutako alderdiei buruzko txostenak egin dituzte dagokion Saileko zerbitzu juridikoek, eta, era berean, irizpenak egin ditu Aholku Batzorde Juridikoak.

Eskumenari lotutako alderdi hauetan, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren 2011ko ekainaren 24ko txostenei eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 69/202 Irizpenari jarraituko diet erabat.

EAEk portuen arloan duen eskumen eskusiboa dugu abiapuntu batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluari jarraiki, Estatuari interes orokorreko portuen eta merkataritza-nabigazioaren arloan dagozkion eskumenak aparte utzi gabe (Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 artikulua), eta txosten horietan kontuan hartutako erreferentziazko arau-esparrua eta irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen Testu Bategina bestetik (lege horrek harrez geroztik aldaketak izan baditu ere, ez dute eskumen-banaketari lotutako alderdirik eraginpean hartzen).

Halaber, Autonomia Erkidegoak lurraldearen eta itsasertzaren antolamenduaren arloan duen eskumenaz egin beharreko interpretazioa eta eskumen hori baliatzeak Estatuak interes orokorreko portuetan duen eskumenaren baliatzean izan dezakeen eragina ditugu abiapuntu (Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiak egindako interpretazioa).

Aurreproiektuaren testuak interpretazio hori errespetatzen du, xedearen inguruko irizpena ematean argi eta garbi adierazten baitu "Euskal Autonomia Erkidegoko eskumeneko" portuei eta portu-instalazio eta itsas instalazioei aplikatzen zaiela.

Eta, halaber, portuetako eta itsas-lehorreko jabari publikoaren Estatuko titulartasuna dugu abiapuntu (Espainiako Konstituzioaren 132. artikulua). Nolanahi ere, titulartasun horrek ez du eragozten Autonomia Erkidegoak portuen arloan duen eskumena baliatzeko aukera, Konstituzio-azuzitegiaren 149/1991 Epaiak onartzen duenez (Aurreproiektuaren 7. artikulua epai horri erantzuten dio).

Aurreko txosten batzuetan aztertu ziren alderdi horiez gain, itsas garraioaren arloa ere aztertu beharra dago, Aurreproiektuak arlo hori ere arautzen baitu.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan bertan xedatzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du itsas garraioen arloan, Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoa aparte utzi gabe (adierazi dugunez, Estatuak interes orokorreko portuen eta merkataritza-nabigazioaren arloan duen eskumena errespetatzen du).

Abiapuntu honekin, kontuan hartu behar da "merkataritza-nabigazio" kontzeptuaren definizioa bera. Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 6. artikuluan, itsas garraioko jarduera hartzen da merkataritza-nabigaziotzat, baina honako hau gaineratzen da: *“arlo horretan eskumenak dituen Autonomia Erkidego bereko portu edo puntuen artean soilik eta beste lurralde-eremu batzuetako portu edo puntuekiko loturarik gabe egiten dena salbuetsita”*.

Ildo horretan, Transferentzien Batzorde Mistoak 2011ko ekainaren 22an hartutako eta ekainaren 24ko 900/2011 Errege Dekretuak onartutako Erabaki bidez, Estatuko

Administrazio Orokorrak itsas garraioaren arloan zituen funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatu ziren.

Aurreproiektuan bildutako erregulazioak Estatuko eskumena errespetatzen du, aplikazio-eremua *“Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzean soilik kokatutako portu edo puntuen artean” eta behar bezala erregistratutako itsasontzietan egiten den bidaiarien, salgaien edo bien*” itsas garraioko jarduerara mugatzen baitu esanbidez.

Azkenik, ekimenak EAEko Administrazio Instituzionalaren pertsona juridiko publiko berri bat sortzea eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua aitortzen duen eta Autonomia Erkidegoak bere eskumenak behar bezala baliatzeko dituen autoantolaketa-ahalmenen isla den eskumena baliatzea dakar. Eskumen hori baliatzeko, administrazio publikoen erregimen juridikoaren oinarriak eta administrazio-kontratuen oinarriko legeria hartu behar ditu kontuan (Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua).

III.- AURREPROIEKTUAREN AZTERKETA

a) Lege Aurreproiektuaren edukiaren balioespena

Legearen hasierako artikuluei dagokienez, "portu" terminoaren kontzeptu zabala erabiltzen da. Funtsean, edozein egitura sar liteke kontzeptu horren barruan, betiere portuko trafikoko jarduerak egitea eta bidezko zerbitzuak ematea ahalbidetzen badu. Portuko trafikoak –legean bertan zehazten denez– itsasontziak sartu, irten, porturatu, egon eta portuan konpontzeko jarduerak biltzen dituela kontuan hartuta, garbi dago dimentsioari, azpiegiturei, zingoari eta antolamendu-baliabideei dagokienez ezaugarri espezifikorik eskatzen ez bada ere (Estatuko erregulazioan eskatzen dira¹), itsasoz garraiatu beharreko salgai eta bidaiariak ontziratu eta lehorreratzeko aukera emango duten azpiegiturretan pentsatu dela.

Bestalde, Legeak bere aplikazio-eremuan horrela ulertutako portuak ez ezik "itsas instalazioak" ere biltzen dituela uler daiteke (babes edo porturatze fisikoko obrak egitea eskatzen ez dutenak eta kokatuta dauden ingurune fisikoaren funtsezko aldaketarik ez dakartenak dira itsas instalazioak). Eta uler daitekeela diogu, 1. artikuluan ezartzen delako legearen xedea dela itsas instalazioen erregimen juridikoa ezartzea, 2.1 artikuluan –arauaren aplikazio-eremua adierazten denean– instalazio horiek esanbidez jasota ez badaude ere.

Hori dela-eta, arau-testuak koherentzia handiagoa izan dezan, 2.1 artikuluan legea “Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren euskal itsasertzeko portuei ez

¹ Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 2. artikulua.

ezik portuko obra eta instalazioei eta itsas instalazioei ere" aplikatzen zaiela esanbidez jasotzea aholkatzen da.

Itsas instalazioei dagokienez, dagoeneko –eskumen-alderdiak aztertzean– adierazi da aurreproiektuaren eremuak erabat errespetatzen duela Estatuko eskumena, eta "Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren" portu-instalazioei eta itsas instalazioei aplikatzen zaiela.

Nabarmena da, beraz, 3.4 artikuluan aipatzen diren itsas instalazioen kasuan itsas-lehorreko jabari publikoko guneak atxiki behar direla, Kostaldee buruzko Legearen 49.1 artikuluan eta Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusi bezala, arauaren aplikazio-eremuan sar daitezten. Alderdi horretan, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia argia da. Andaluziako kirol-portuei buruzko legearen aurka jarritako errekursoan honako hau ezarri zuen (Konstituzio Auzitegiaren 193/1998 Epaia):

*Kostaldee buruzko Legearen 110. artikulua xedatzen duenez, Estatuko Administrazioari dagokio «itsas-lehorreko jabari publikoaren kudeaketa... eta, nolahi ere, itsasoko obra finkoen emakidak eta itsas instalazio txikiak, hala nola ontzireleku, pantalan eta baratokiak eta portu baten parte ez diren edo portuari atxikita dauden beste antzeko batzuenak». Konstituzio-azitegiaren 149/1991 Epaia (7.A), b) funts juridikoan, erabat konstituzionalizat hartu zuen adierazitako agindua, eta, beraz, ez da onargarria Andaluziako kirol-portuei buruzko legeak zabaldu nahi izatea Autonomia Erkidegoak kirol-portuen arloan duen eskumena edozein baratoki edo pantalanetara (kirol-nabigazioko erabileraren bat izan dezaketelako), garbi baitago ez direla benetako portuak. Hori guztia aparte utzi gabe, nabarmena da **kasu jakin batzuetan itsas instalazio txikiak kirol-portu batekin parekatzeko modukoak badira (instalazio horien garrantziatik edota bertan egiten den kirol-nabigazioko erabileraren garrantziatik), instalazioen kalifikazioaren aldaketa eragin dezaketen administrazio arteko lankidetzak-jardunak hasi ahal izango direla. Horrekin batera, instalazioen titulartasuna ere aldatu egingo litzateke kirol-portuaren kalifikazioa eman ondoren.***

Ilde beretik jo zuen Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia bere 9. funts juridikoan. Izan ere, Estatuko Portuei buruzko Legearen 4. artikulua («itsas instalazioei» buruzkoa) konstituzio-kontraktat hartu ondoren, zehaztu zuen horrek «ez duela inolako eraginik Estatuak Kostaldee buruzko Legearen 110.b) artikulua amaieran adierazitako instalazio txikiak duen eskumenean, ezta lege beraren 49.1 artikuluan eta Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako itsas-lehorreko jabari publikoko guneak atxikitzearen bidez autonomia-erkidegoetan portu deitzen denak portuen berezko ezaugarriak biltzen dituztela eta Estatuaren eskumeneko itsas instalazio txikiak ez direla kontrolatzeko aukeran» (Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia 9. funts juridikoa).

EAEko portu-jabaria mugatzen duen eta jabari horren barruan “*titulartasun publikokoak diren eta erabilera orokorrari edota Autonomia Erkidegoaren eskumeneko portu-zerbitzu publikoari lotuta dauden eskubide eta ondasunak (higigarriak eta higiezinak)*” biltzen dituen 7. artikuluari dagokionez, Kostaldee buruzko 22/1988 Legearen aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsuak ebatzi zituen Konstituzio-auzitegiaren 149/1991 Epaia aipatu beharra dago. Epai horrek argitu egiten du Autonomia Erkidegoaren titulartasunaren norainokoa portuko jabari publikoari dagokionez. Nolanahi ere, errespetatu egiten du Estatuaren hasierako titulartasuna. Honako hau dio epaiak: “*Autonomia Erkidegoaren eskumenak portu-zerbitzu guztiak hartzen ditu eraginpean (orokorrak zein espezifikokoak), baita Autonomia Erkidegoari datzekion eta Estatuaren eskumenekoak ez diren zerbitzu eta jarduera erantsi guztiak ere. Hortaz, portuko obra eta instalazioak Autonomia Erkidegoak sortu eta kudeatzen ditu. Izan ere, Autonomia Erkidegoak obra eta instalazio horien erabateko titulartasuna du, edota itzuli arte geroratua, obra edo instalazioaren emakida amaitu ondoren. Dena dela, portuetako obrak eta instalazioak autonomia-erkidegoen titulartasunpekoak izateak ez dakar Europar Batasunaren esanbidezko aginduz Estatuaren titulartasunpekoa den lursailaren jabari publikoaren erabateko titulartasuna*».

Portuetako zerbitzuguneari buruzko 8. artikuluari dagokionez, Kostaldee buruzko Legean egindako aldaketa hartu behar da kontuan. Aldatutako 49. artikulua 4. paragrafoak Estuari esleitzen dio itsas-lehorreko jabari publikoan gara daitezkeen erabilerak banatzeko irizpideak erregelamendu bidez zehazteko ahalmena.

«4. 3. artikuluko ezaugarriak ez dituzten itsas-lehorreko jabari publikoko ondasun atxikien zerbitzuguneari, portu-jarduera garatzeko beharrezkoak diren erabilerekin gain merkataritza-erabilerak eta jatetxe-erabilerak baimendu ahal izango dira, betiere itsas-lehorreko jabari publikoa eta portu-jarduera kaltetzen ez badituzte eta hirigintza-plangintzan ezarritakora egokitzen badira. Nolanahi ere, bizitzeko eraikinak debekatuta daude.

Erregelamendu bidez, aurreko paragrafoan aurreikusitako erabileretarako gehieneko azalera esleitzeko irizpideak finkatuko dira, portuko amarratzeen kopurua eta itsas-lehorreko jabari publikoa eta portu-jarduera ez kaltetzeko beharrezkoak diren gainerako baldintzak kontuan hartuta».

Portuko administrazioak egiten duen erabilera-mugaketak, beraz, Estatuak ezartzen dituen mugak bete beharko ditu. Aholkularitza-bulego honek Kostaldee buruzko Legearen aldaketak Sailaren eskumen-eremuan duen eragina aztertu zuenean adierazi zenez, aurreikusitako arau-garapenaren zain egon beharra dago. Izan ere, garapen hori generikoa eta, beraz, Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuarekin bateragarria izan daiteke, baina, “*halaber, oso zorrotza izan daiteke eta Autonomia Erkidegoaren eskumena eta etorkizuneko Portuen Legearen aurreikuspenak edukirik gabe utz ditzake*”.

Portuen plangintza, eraikuntza eta mantentzeari buruzko II. kapituluari dagokionez, artikuluetan aipatzen diren "portu" eta "portu-instalazio" kontzeptuak argitu behar dira

lehenik eta behin. Izan ere, definizioei buruzko 3. artikulua portu-azpiegituraren definizioa jasotzen ez badu ere, 9. artikuluan erabiltzen da kontzeptu hori.

Horri dagokionez, artikulua horiek portuen plangintzari, hirigintza-antolamenduari, eraikuntzari eta mantentzeari buruzkoak direla kontuan hartuta, logikoa dirudi pentsatzeak "portu-azpiegitura" kontzeptuarekin portuak, portuetako obra eta instalazioak zein itsas instalazioak biltzen dituen kontzeptu generiko bat erabili nahi dela. Dirudenez, norainoko hori ematen zaio kontzeptu berari Legearen zioen azalpenean eta sortzen den entitatearen eskumenei buruzko beste artikulua batzuetan. Beraz, komenigarria izango litzateke 3. artikuluan "portu-azpiegituraren" definizioa barnean hartzea".

Bestalde, plan berezien izapideei dagokionez, aurreko legegintzaldian jarraitutako irizpidea aldatzea eta lehenago izapidetutako hasierako proiektuetako borondatea berreskuratzea dakar aurreproiektuak. Horrela, beraz, portuen arloan eskumena duen sailari esleitzen zaio portu-antolamenduko plan bereziei hasierako, behin-behineko eta behin-betiko onarpena emateko eskumena.

Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago plan horiek formulatu, izapidetu eta onartzeko eskumena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan ezartzen dela. Izan ere, artikulua horretan, "horretarako eskumena duen ... Eusko Jaurlaritzaren organoari" esleitzen zaio eskumena, baina mugaketa horrekin ezin da zehatz-mehatz jakin esleipena hirigintza-arloan eskumena duen sailari ala planaren onarpena justifikatzen duen arlo sektorialean eskumena duen sailari egiten zaion.

Bestalde, orain arte onartu diren plan berezien analisiak ere ez digu soluzio biribilik ematen, hirigintza-arloan eskumena duten sailek –Mutriku, Bermeo eta Ondarroan, adibidez– zein portuen arloan eskumena duten sailek –Hondarribia, Getaria eta Zumaian, adibidez– onartu baitituzte plan bereziak portu-eremuan. Portuekin zerikusirik ez duten arloetan, plan berezi gutxi onartu ditu Eusko Jaurlaritzak. Hain zuzen ere, ingurumenari eta naturaren babesari lotutako arloetan (Txingudi) edota hirigintzari eta lurralde-antolamenduari lotutako arloetan (Nerbioiko parke lineala) onartu dira, baina onartzeko unean hirigintza-arloan ere eskumena zuen sailari esleitutako eremu materialetan beti. Hortaz, horien onarpena ere ez da argigarria.

Dena dela, ez da ahaztu behar, plan bereziak formulatu, izapidetu eta onartzeko eskumena duen saila edozein izanik ere, aurreproiektuak lurzoruaren legean ezarritakoari jarraitzen diola plan horiek onartzeko prozedurari dagokionez. Beraz, Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena beharko dute plan horiek. Izan ere, organo horrek bermatzen du, azken batean, plana gainerako hirigintza-tresnetan eta lurraldea antolatzeko tresnetan behar bezala txertatuta dagoela.

Gai horren harira, Lehen Xedapen Iragankorrak erregimen iragankor bat ezartzen du *“Lege hau indarrean sartzean izapidetzen ari diren”* portuko plan berezietarako. Ez da ongi ulertzen erregimen iragankor horren zentzua, ez baitago garbi, arestian esan dugunez, legeak aldaketa bat dakarrenik plan horiek onartzeko prozedurari edota horretarako eskumenen esleipenari dagokionez. Horrela, beraz, horren mantentzea balioetsi beharko da, eta, horretarako, une honetan izapidetzen ari den plan berezirik ba ote dagoen eta, egonez gero, zer fasetan dauden eta hasierako eta behin-behineko onarpenak zer organok eman dituen hartu beharko da kontuan.

Bigarren atalean araututako portuetako espazio eta erabileren mugaketari dagokionez, onartzeko jarraitu beharreko prozedura ezarriko duen ondorengo arau-garapen bat aipatzen du 13. artikulua. Edonola ere, erregulazio horrek bete beharreko gutxieneko batzuk bermatzen ditu artikulua horrek berak. Gutxieneko horiei dagokienez, eraginpean hartutako toki-administrazioek eta administrazio sektorialek prozeduran parte hartzeko aukerarekin batera, eraginpean hartutako sektore ekonomiko eta sozialen parte-hartzea ere biltzeko aukera balioestea gomendatzen da. Ez da ahaztu behar, tresna horren helburua merkataritza, arrantza eta aisialdi-nabigazioko erabileren banaketa dela kontuan hartuta, enpresek, profesionalen elkarteek edo kirol-klubek berebiziko interesa izango dutela banaketa horretan.

Erabileren mugaketari lotutako bi figura horiei dagokienez, eta espedientean bien arteko aldeak justifikatzen dituen azalpenik ematen ez dela kontuan hartuta, komeni da kontuan hartzea bi figura horiek eremu desberdinekoak diruditela. Izan ere, plan bereziek "portu-eremu" osoaren hirigintza-antolamendua biltzen dute, eta portuetako espazio eta erabileren mugaketa, berriz, "portuetako zerbitzugunea" antolatzen mugatzen da. Aurreproiektuaren 7. eta 8. artikuluetan jasotako definizioei jarraiki, bi kontzeptu horiek ez datoz bat, eta, beraz, bi figura horien eremuak ere ez dira bat etorriko.

Bestalde, 14. artikulua portuen eraikuntza, zabalkuntza, erreforma eta mantentzea arautzen du, eta, oro har, jardunak portuen plan berezietan aurreikusitakora egokitzeko beharra planteatzen du. Artikulu horren 3. puntuak plan horietan aurreikusi gabeko jardunak egiteko aukera onartzen du, betiere "egiaztatutako larrialdietan edo salbuespenezko interes publikoko kasuetan". Kasu horietan, Gobernu Kontseiluak gorabehera horiek kontuan har ditzan eskatzen du puntu horrek.

Erregulazio horri dagokionez, beharrezkotzat hartzen dugu Gobernu Kontseiluak "egiaztatutako larrialdietan" parte hartzeak izan ditzakeen ondorio praktikoen inguruan ohartaraztea. Kasu horietan planean aurreikusitakoaren aurka jardutea dakarren larrialdi-izaera hori nekez etor daiteke bat larrialdi hori Gobernu Kontseiluak kontuan hartzeko beharrezkin edo, gutxienez, aurkakoa esan ezean logikoa dirudenez, alde aurretik kontuan hartzearekin.

Horri dagokionez, larrialdietako jardunen arloko kontratuen erregulazioa askoz permisiboagoa eta koherenteagoa da horrelako jardun bat justifikatu behar duen ustezko larrialdi egiaztatuarekin. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 113. artikulua kontratazio-organoaren berehalako jarduna ahalbidetzen du, 60 eguneko epean Ministroen Kontseiluari jakinarazteko eskatzen badu ere. Eredu hori edo beste antzeko bat hartzearen komenigarritasuna balioestea gomendatzen da, Gobernu Kontseiluari jardunaren ondoren jakinaraz dakion eta, bestalde, jardun iraunkorra izanez gero, plan bereziaren aldaketa berehala has dadin.

Kapitulu honen 4. atalak portuko jabari publikoaren kontserbazio-erregimena arautzen du, eta isurketen debeku bat ezartzen du. Debeku hori bat dator ingurumen-araudian ezarritako printzipioekin, hondakinak kontrolik gabe desagerrarazteko debekuari zein itsas-lehorreko jabari publikoaren babesari dagokionez. Dena dela, kontuan hartu beharra dago debeku horrek norainoko mugatua duela (nahi ez bezala, seguruenik). Izan ere, "zerbitzuguneetan garatutako jardueretatik" datozen isurketak debekatzen dira, baina debeku horrek portuko jabari publiko osoan egindako jarduerak hartu beharko lituzke eraginpean.

Bestalde, arlo horri dagokionez, kontuan hartu beharko da hondakinak kudeatzeko jardueraren barruan, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 3. artikulua definitzioaren arabera, hondakinak biltzeko zereginak sartzen direnez gero, portuko administrazioak, portuetan zerbitzu horiek eskaini behar dituen neurrian, aginduzko baimena lortu beharko duela.

Aurreproiektuaren III. kapituluan, zuzenbide pribatuko KAIK entitate publikoa sortzen da. Erabaki hori Autonomia Erkidegoko administrazioaren antolamendu libreari lotutako eskumenaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua) eta autonomia-erkidegoetako administrazioak osatzen dituzten edo horien mende dauden organo, administrazio-unitate edo entitateak sortu, aldatu eta bertan behera uzteko ahalmenaren isla da (Konstituzio Auzitegiaren 35/1982, 165/1986, 13/1988, 227/1988 eta 50/1999 epaiak).

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko legerik ez dagoenez gero Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauerei buruz indarrean dauden lege-xedapenen (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua) Testu Bateginean aurreikusita dauden pertsonifikazio juridiko independenteetako bat aukeratu da: zuzenbide pribatuko entitate publikoak, hots, lege horretan ogasunaren eskumeneko jarduerak deszentralizazio-erregimenean egiteko helburua duten eta funtsean zuzenbide pribatuari jarraitzen dioten entitate publiko gisa definituta daudenak.

Aurreproiektuaren justifikazio-memorian zuzenbide pribatuko entitate publiko bat sortzeko aipatzen diren arrazoiak portu-azpiegitura desberdinetarako kudeaketa-eredu

uniforme baten ezarpenari eta kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzeari lotuta daude, eta hori bat dator antolaraueti buruzko legean ezarritakoarekin. Izan ere, zuzenbide pribatuaren erabilera instrumentala hartzen da kontuan lege horretan, "*horrela, zuzenbide publikoa eta pribatua batera erabilita, eraginkortasun handiagoa lortzeko beste baliabide bat izan dezagun*" (Zioen Azalpena).

Zuzenbide pribatuko entitate publikoak "hibridoak" dira –publikoak eta pribatuak–, eta sortzen dituzten legeek zehazten dute zer neurritan dauden zuzenbide publikoan eta zuzenbide pribatuean. Jakina, erabaki horrek badu bere baldintza. Izan ere, estatutu berezia ezartzean, legeak kontuan hartu behar ditu, ahalmen publikoak garatzean, administrazioen jardueraren inguruko bermeak eta kontrolak. Ildo horretan, aurreproiektuaren 22. artikulua zuzenbide publikoaren mende dauden entitatearen jardunak mugatzen ditu: jabari publikoa antolatu eta kudeatzeko jardunak, zehapen-ahalmena baliatzeko aukerari lotutakoak, zergak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko jardunak eta ahalmen publikoak baliatzea dakarten guztiak.

Konstituzio Auzitegiak onartu duenez, "*Zuzenbide Pribatuari jarraiki pertsonifikatzen diren edo funtzionatzen duten erakundeen instrumentaltasunak administrazio-erakunde batean kokatzen du haien azken titulartasuna, eta erakunde horrek publikoa izan behar du argi eta garbi; publikoa da, halaber, erakunde horiek eta gaineratik duten Administrazioa lotzen dituzten harremanen barne-eremua; azken batean, Zuzenbide Pribatuak eskainitako teknikak erabiltzen ditu Administrazioak, bere ekintza sozial eta ekonomikoa zabaltzeko baliabide praktiko gisa*" (Konstituzio Auzitegiaren 14/1986 Epaia, urtarrilaren 31koa).

Entitate berria sortzeko garaian zuzenbide pribatuko entitate publikoa aukeratzeko erabakia Bermeoko Euskadiko Kirol Portua sozietate publikoaren jardunari lotutako jurisprudentzia-erabakiek, hots, Auzitegi Gorenak 2616/2009 kasazio-errekurtsoan emandako 2012ko maiatzaren 17ko epaiak (1356/2006 prozedura arrunta, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan) baldintzatuta egongo zen seguruenik.

Epai horrek Konstituzio Auzitegiak 102/2005 eta 121/2005 epaietan ezarritako doktrina jasotzen du. Zehazki, epai horietan, konstituzio-kontrakotasuneko hainbat gairen inguruan, konstituzio-kontrakotzat eta baliogabetzat hartu zituen Estatuko Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko azaroaren 24ko 27/1992 Legearen 70. artikulua 1. eta 2. puntuak, "prezio pribatutzat" hartzen baitzituen azken batean ondare-prestazio publikoak (tasak, zehazki) ziren eta, beraz, lege-erreserbaren printzipioan zeuden portu-zerbitzuengatik kontraprestazioak.

Auzitegi Gorenak dioenez, kasu honetan ere ukaezina da zuzenbide publikoko erregimenean egindako zerbitzu edo jarduera batzuen aurrean gaudela. Izan ere, zerbitzu edo jarduera horiek interesdunek nahitaez eskatu edo jaso beharrekoak dira,

eta ez ditu sektore pribatuak ematen edo egiten. Horrela, beraz, "ondare-prestazio publiko" kontzeptu zabalean kokatu beharreko kontraprestazioak sortzen dira (Espainiako Konstituzioaren 31.3 artikulua).

Hortaz, portuko jabari publikoa erabiltzeagatik ordaindu beharreko kontraprestazioen tasa-izaera finkatu ondoren, diru-sarrera horien kudeaketaren ardura ezin zitzaion sozietate publiko bati eman. Izan ere, Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 18.1 artikuluari jarraiki (irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutako testu bategina), *"tasen kudeaketa eta likidazioa tasaren sortzapena eragiten duen zerbitzua ematen edo jarduera egiten duten zuzenbide pribatuko sail, erakunde autonomo eta entitate publikoei dagokie"*.

Ildo horretan, sortzen den entitateari esleitzen zaion zuzenbide pribatuko entitate publikoaren izaera juridikoa dela-eta, portuko jabari publikoaren kudeaketa eta jabari horren erabileraren ondoriozko tasen kobrantza esle dakizkioke entitate horri.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak bere irizpenetan –56/2003, 69/2006 eta 160/2007 irizpenetan, besteak beste– jaso duenez, honako hau da entitate horien erregimen juridikoa:

- Autonomia Erkidegoko gainerakoek dutenaz bestelako nortasun juridiko propioa dute (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 7.3.b artikulua).
- Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko arloei dagokienez, esanbidez aplikagarriak zaizkien xedapenei jarraitzen diete, eta kontrajartzen ez zaizkien alderdietan, berriz, zuzenbide pribatuari (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 18. artikulua);
- Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko arloetan, zuzenbide pribatuko entitate publikoei esanbidez aplikatu beharreko xedapenak daude Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean (aurrekontuaren aurreproiektua lantzeari buruzko 29.2 artikulua eta diru-laguntzen inguruko jarduerari buruzko 48.5 artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean (zorpetzeari buruzko 35. artikulua, eta bermeen prestazioari buruzko 51. artikulua), maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzak Dekretu bidez onartutako Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legearen testu bateginean (21. eta 39. artikulua eta lotutakoak), Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-kontrolari eta kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legean (1.4 eta 6.3 artikulua eta Hirugarren Xedapen Gehigarria, besteak beste), azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean (1.1.a artikulua eta

bat datozenak), eta irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateginean (1.1 artikulua eta lotutakoak).

- Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko arloetatik kanpo Autonomia Erkidegoko erakunde-administrazioaren erregulazio orokorrik ez dagoela kontuan hartuta, Autonomia Erkidegoko edo Estatuko xedapenak aplikatu behar zaizkie zuzenbide pribatuko entitate publikoei, kasu bakoitzean baliatu nahi diren funtzio edo prerrogatiben arabera (30/1992 Legearen 2.2 artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 50/1999 Epaiak lege horretan bereizitako oinarrizko edukiei dagokienez), eta entitatearen funtzionamendu- edo finantzaketa-baldintzen arabera (adibidez, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 3. artikulua).

Aurreproiektuak, oro har, ez ditu alderdi horiek esanbidez aipatzen. Hori dela-eta, adierazitako erregulazio orokorra era osagarrian aplikatuko da aurreikuspen espezifikorik izan ezean. Dena dela, aipatu beharra dago aurreproiektuan (26. artikuluan) jasota dagoen aurreikuspen espezifiko bakarra, aurrekontuen onarpenari buruzkoa. Aurreikuspen horrek bere aurrekontu-aurreproiektua landu eta onartzeko ahalmenak esleitzen dizkio KAIK entitateari.

Horri dagokionez, ogasunaren arloan aplikatu beharreko legeriak (hots, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak –59. artikulua– eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak –29. artikulua–) erakunde-administrazioa osatzen duten entitateek beren aurrekontu-aurreproiektuak lantzeko duten eskumena onartzen du, baina ez du horien onarpena aipatzen (aurrekontu-aurreproiektuen onarpena –ondoren Legebiltzarrerara igortzeko– Jaurlaritzak erabaki behar duela dioenean izan ezik). Dena dela, aurrekontu-aurreproiektuak onartzeko esanbidezko eskumen-esleipenik ez badago ere, Aurrekontu Erregimenari buruzko Legeak aurrekontuen arloan eskumena duen sailari esleitzen dio aurrekontuak Jaurlaritzaren onarpenera jartzeko eskumena, baita aurrekontu horiek lantzeko eskumena ere (60. artikulua). Beraz, zeharka bada ere, bitarteko funtzio bat esleitzen dio, erakunde-administrazioa eta sektore publikoa osatzen duten entitate eta sailei dagokienaren eta aurrekontuen lege-proiektua onartu behar duen Jaurlaritzari berari dagokionaren artean.

Jakina, Eusko Legebiltzarraren esku dago aurrekontu-eskumenen erregimen orokorrari salbuespenak jartzea eta pertsonifikazio jakin batzuei autonomia berezi bat ematea. Edonola ere, espedientetik ezin da ondorioztatu aurreproiektuaren azpiko borondatea hori denik, eta ez dago jakiterik zein diren erregimen orokorretik bereizteko arrazoiak. Hortaz, aginduari eman nahi zaion benetako zentzuari buruzko gogoeta egitea eta, horren arabera, proiektatutako idazkuntza berrikustea iradokitzen dugu.

Langileei dagokienez, aurreproiektuak honako hau ezartzen du: *“lanpostuak beteko dituzte horretarako kontratatutako langileek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek, betiere lanpostu bakoitzak izango dituen eginkizunen izaeraren arabera”* (24. artikulua). 2.- *Ahal publikoak baliatzea dakarten lanpostuak funtzionarioek bete beharko dituzte, eta langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzio publikoa arautzen duten arauak bete beharko dituzte.*

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da, Konstituzio Auzitegiak esandakoari jarraiki, funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen arteko bereizketa oinarrikoa dela indarrean dagoen legerian. enplegu- eta lan-baldintzei dagokienez, funtzionarioak botere publikoen organo eskudunek agindutako legezko eta erregelamenduzko arauen bidez gobernatzen dira, estatutu-harremanaren ondorioz; herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen lan-baldintzak, aldiz, legeek eta araudiek ezartzen dituzte batetik, eta hitzarmen kolektiboek eta/edo langilearen eta erakunde publikoaren arteko banakako kontratuek bestetik, partikularren artean gertatzen den moduan (Konstituzio Auzitegiaren 57/1982 Epaia).

Funtsezko bereizketa hori onartuta, komeni da kontuan hartzea, halaber, Autonomia Erkidegoaren eremuan Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeko otsailaren 25eko 1/2004 Legeak ez dituztela beren aplikazio-eremuan zuzenbide pribatuko entitate publikoetako funtzionarioak biltzen. Hala ere, adierazitako lehen legeak izaera osagarria ezartzen du euskal administrazio publikoen zerbitzura diharduten langile guztientzat.

Zuzenbide pribatuko entitate publikoetako funtzionarioek izan dezaketen erregimen propio hori erabakigarria da aurreproiektuak bere 24. artikuluan jasotzen duena interpretatzeko. Izan ere, lehen 2 paragrafoetan adierazten denez, entitateko lanpostuak “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko” langileek beteko dituzte, eta hirugarren paragrafoan, berriz, Administrazio Orokorreko funtzionarioei dagokienez funtzio publikoaren arloan eskumena duen Sailari edo, dekretu bidez onartzen diren heinean, Jaurlearitari berari dagozkion funtzioak esleitzen zaizkio entitateari.

Hortaz, argitu egin beharko da zein den aurreproiektuaren borondatea: funtzionario propioak izatea eta horiei dagokienez lanpostuak betetzeko erregimena eta lanbide-sustapeneko prozedurak finkatzeko eskumenak (24. artikulua hirugarren paragrafoan biltzen direnak) baliatzea, ala entitateko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak EAEko Administrazio Orokorreko langileekin betetzea (funtzio horiek funtzio publikoaren arloan eskumena duten organoek beteko dituzte).

Amaitzeko, KAIKAK entitateari buruzko kapituluaren azterketarekin amaitzeko, azpimarratu beharra dago egoitzak izendatzearen arloan jarraitu beharreko lege-erreserbaren printzipioa (Euskadiko Autonomia Estatutuaren 4. artikuluari jarraiki). Nabaria denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Egoitzari buruzko maiatzaren 23ko 1/1980 Legeak ez du Estatutuaren aurreikuspena agortzen, eta lege horretan ezarritako Gasteizkoaz bestelako egoitzak egon daitezke. Estatutuaren testuak, ordea, argi eta garbi eskatzen du Eusko Legebiltzarraren Legea horretarako. Hortaz, Legearen isiltasunak geroago beste egoitza bat finkatzeko ezintasuna dakar.

Illo horretan, egoitzei buruzko legean ezarritakotik bereizteko justifikazio nahikoa behar bada ere, portu-azpiegiturekiko hurbiltasuna argudio nahikoa izan liteke egoitza bat Gasteiz ez den leku batean kokatzearen alde.

Dena dela, bereizitako pertsonaren premia errealak kontuan hartuta, kasu honetan nabaria da, halaber, egoitza Gasteizen edukitzeak Lurralde Historiko bakoitzean beharrezkoa den dimensio organikoa eta deskontzentratutako organo eta zerbitzu teknikoak bidezkoa den lekuan kokatzeko aukera ahalbidetzen dituela.

Legearen IV. Kapitulua portuen erregimen juridikoa arautzen du, eta bi ataletan egituratuta dago. Lehena portu-zerbitzuei buruzkoa da, eta bigarrena, berriz, portuko jabari publikoaren kudeaketari buruzkoa.

Portu-zerbitzuen erregulazioak egiten duen sailkapen ezagunean, bi zerbitzu mota bereizten dira: zerbitzu orokorrak (horien titulartasuna eta prestazioa Administrazioaren esku geratzen da, eta, nolana ere, horien zeharkako kudeaketa onartzen da) eta zerbitzu bereziak (zerbitzu-emateen arteko lehia nahikoa bermatzen duten merkatu-baldintzak betetzen direnez gero, zerbitzu horien prestazioa sektore pribatuari dagokio, lehia-erregimenean).

Portuko pilotaje- eta atoi-zerbitzuei dagokienez, kontuan hartu behar da Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 6. artikuluari jarraiki pilotaje-zerbitzua emateko gaikuntza eta beharrezkoak diren portuko atoi-zerbitzuen finkapena merkataritza-nabigaziotzat hartzen den "itsas segurtasun" kontzeptuaren barruan daudela eta horren eskumen eskusiboa Estatuarena dela. Portuko administrazioak eskumen-banaketa hori bete behar du zerbitzu horiek ematean.

Bestalde, azpimarratu beharra dago 137. artikulua esanbidez jasotzen duenez, balizamendu-zerbitzuek eta nabigaziorako beste laguntza batzuek ez dituztela baldintzatzen Estatuko Administrazioari dagokion itsas seinaleztapeneko zerbitzuaren arloko eskumenak (Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 137. artikulua).

Zerbitzu-prestazioaren erregimenari dagokionez, aurreproiektuaren arabera portuko administrazioak emango ditu zerbitzu orokorrak, eta partikularrek zerbitzu bereziak, lehia-erregimenean. Gainera, zerbitzuak zeharkako kudeaketa bidez emateko debekua ezartzen da aginpidea baliatzea dakarten zerbitzuen kasuan, eta hori bat dator langileen inguruan ezarritako mugarekin (horren arabera, funtzionarioek bete behar dituzte zeregin horiek).

Dena dela, puntu berean gaineratzen denez, debeku hori aplikatuko da, halaber, "beste edozein arrazoi dela medio zuzeneko kudeaketa egokitzat jotzen bada". Azken esaldi horrek ez du segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen (Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua), printzipio hori botereak Zuzenbidea aplikatzean nola jokatu behar duen galderaren inguruan herritarrek egiten duten aurreikuspena dela ulertuta (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 14ko 36/1991 Epaia, F.5). Hori dela-eta, esaldi hori kentzea gomendatzen da.

Bestalde, zerbitzugunea erabiltzeko erregimenari buruzko 31. artikuluari dagokionez, berrikustea gomendatzen da, errepikakorra baita zenbaitetan.

Bigarren atalak portuko jabari publikoaren kudeaketa arautzen du, eta artikuluen garapena aurreko aurreproiektuetakoa baino laburragoa da. Eremu horretan, kontratu eta emakida administratiboen arloko oinarrizko legeriaren gaineko eskumen eskusiboak (Estatuaren eskumenekoa denak, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan xedatutakoaren arabera) zein Euskadiko Ondareari buruzko Legean jasotako Autonomia Erkidegoko erregulazioak eragiten dute. Hori kontuan hartuta, arlo horretan garapen zorrotzik ez egitea proposatzen duen Zuzendaritzaren aukera ez da egokitzat hartzen.

Portuko jabari publikoaren izaera abiapuntutzat hartuta (Espainiako Konstituzioaren 132. artikulua), portuko jabari publikoaren okupazio pribatiborako gaitzen duten tituluen dualtasuna ezartzen da okupazio horren epearen arabera (3 urtera arte, okupazioak baimena eta emakida beharko lituzke; epe horretatik aurrera, berriz, emakida baino ez), eta epe espezifiko bat amarratzeko baimenetarako (kasu horretan, bete beharreko epea ez litzateke izango 3 urteko epe orokorra, 5 urtekoa baizik).

Administrazio-emakidaren iraungipena arautzen duen 37. artikuluari dagokionez, prozedurari buruzko erregulazioa ondorengo arau-garapenari lotzen zaio, baina nahitaez bete beharreko bi alderdi ezartzen dira legean bertan: interesdunari entzutea eta Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenera jartzea "araudi erregulatzailaren arabera nahitaezkoa bada". Komenigarritzat jotzen da araudi erregulatzailerari jotzeari buruzko gogoeta egitea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak emakiden iraungipenari buruzko espedienteak horren mende jartzeko ezartzen baitu, "aplikazio-arauek horrela eskatzen dutenean".

Zuzendaritza sustatzailearen borondatea espediente horiek Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenera jartzea balitz (emakidaduna aurka dagoenean, Estatu Kontseiluari buruzko erregulazioak ezartzen duen bezala), hori jaso beharko litzateke esanbidez.

Artikulu berari dagokionez, 38.2 artikuluari jarraiki kapital sozialaren transmisioak ere baimena behar duela kontuan hartuta, kasu hori ere jaso beharko litzateke 37.1 artikulua 1) letran. Era berean, baimenaren titularraren heriotzaren jakinarazpenik eza jaso beharko litzateke m) letran, 41.5 artikuluan ezarritako jakinarazteko betebeharrari jarraiki.

Aurreproiektuaren 40. artikulua emakiden erreskatea arautzen du, eta honako hau eskatzen du: *“Erreskatea egin aurretik obren edo jardueren portu-interesa deklaratu beharko da, eta obrek edo jarduerak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra dagoela dioen erabakia hartu beharko da”*. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da aurreproiektuaren 16. artikuluari jarraiki deklarazio horiek inplizituki ezarrita daudela portuak eraiki, zabaldu eta erreformatzeko proiektuen onarpenetan. Hori dela-eta, ez litzateke beharrezkoa izango deklarazio independente bat egitea.

Baimenei buruzko erregulazioari dagokionez (41. artikulua), 3. puntuak lehiaketa-prozedura ezartzen du baimenak emateko lehentasunezko prozedura gisa. Nolanahi ere, zozketa ere erabili ahal izango da baldintza jakin batzuetan. Bi kasuetan, publizitatearen, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren eta gardentasunaren printzipioak bete beharko dira (uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 75. artikulua).

Artikulu horretan bertan, ebazpena emateko epea (6 hilabetetan finkatua) igaro ondorengo administrazioaren isiltasun negatiboa ezartzen da prozedura horietarako. Isiltasunaren izaera negatibo hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako printzipio orokorraren aurkakoa da funtsean, baina arau orokor horrek babesten du, jabari publikoari lotutako ahalmenak hartzen baititu eraginpean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 43.2 artikulua).

Aurreproiektuaren V. Kapitulua itsas garraioko enpresa operadoreen erregistroa arautzen du. Arlo horri dagokionez, estatu kideen barruko itsas garraioetan (itsasoko kabotajea) zerbitzuen prestazio librearen printzipioa aplikatzen duen Kontseiluaren 3577/92 zenbakiko Erregelamendua (EEE) aplikatu behar da. Erregelamendu horri jarraiki, estatu kideek ezin dute askatasun hori ezein mugaren baldintzapean jarri, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Hortaz, estatu kideek ezin dute alde aurreko ezein baimen-sistematik sartu.

Horri jarraiki, enpresa operadoreak, ibilbideak, ordutegiak, ontzien ezaugarriak, tarifak eta abar inskribatzeko betebeharra baino ez du ezartzen Aurreproiektuak.

Inskribatzeko betebeharrak hori zerbitzuen prestazio librearen printzipioaren errespetuarekin bateragarritzat hartzen da. Batzordeak adierazitako Erregelamenduaren interpretazioaren inguruan egindako Komunikazioak (COM(2014) 232 final, Brusela, 2014.4.22) esanbidez jasotzen du hori. Komunikazio horren arabera, eman nahi dituzten zerbitzuei buruzko aurretiazko informazioa emateko eskatu ahal izango diete estatu kideek armadorei. Estatu kideei garraio-premia errealak hobeto ebaluatzeko aukera emango dien informazioa edukitzea komeni zaiela aipatu du Batzordeak ahalmen hori justifikatzeko.

Aurreproiektuaren VI. Kapituluak polizia- eta zehapen-erregimena arautzen du bi atal berezitan (bakoitzak arlo bat hartuta).

Polizia-erregimenari buruzko lehen atalari dagokionez, honako kontsiderazio hauek egin behar dira:

43. artikulua zaindu, ikuskatu eta kontrolatzeko ahalmenak arautzen ditu, eta ahalmen horiek portuko administrazioko langileek baliatuko dituztela ezartzen du. Ondorio horietarako, langile horiek agintaritzaren agenteak izango dira, eta froga-balioa izango dute haiek egiaztatutako gertakariak. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da artikulua horretan jasota dagoen administrazio-akten egiazkotasun-presuntzioa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean (137.3 artikuluan) jasotako presuntzio generikoaren ondoriozkoa dela.

Hori guztia Aurreproiektuaren 22. artikuluan (KAIK erakundearen jardunaren erregimen juridikoari buruzkoan) ezarritakoarekin lotuta, garbi dago horrelako jardunak administrazio-zuzenbidearen mende daudela eta, horren ondorioz, ikuskapen-jardun horiek funtzionarioek egin behar dituztela.

Portuetako jardueren babesari buruzko 44. artikuluari dagokionez, 2. puntuan aurreikusitako arau-garapenean kontuan hartu behar da garapen horrek itsas segurtasunaren inguruko itsas kapitaintzako eskumenak errespetatu behar dituela, zatikatzeko zein hondoratzeko eragiketetan Itsas Kapitaintzaren alde aurreko erabakia eskatu behar baita, Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 303. eta 304. artikuluei jarraiki.

Jabetza berreskuratzeari eta utzarazpen administratiboari buruzko 45. artikuluari dagokionez, Euskadiko Ondareari buruzko Legean² ezarritako erregimen orokorretik abiatu behar dugu. Lege horren 19. artikulua zuzenbide pribatuko entitate publikoen utzarazteko eta jabetza berreskuratzeko ahalmenak mugatzen ditu, "jabari publikoko ondasunak babesteko". Portuko jabari publikoko ondasunen izaera kontuan hartuta,

² Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Testu Bategina

garbi dago legeak sortzen duen entitatearen eskumena ahalmen horiek baliatzeko, eta testuaren 21.k) artikulua eskumenen esleipenari dagokionez biltzen duen hondar-klausulari jarraiki, eskumena ez dagokio Administrazio Orokorrari, entitate publikoari baizik.

Bigarren Atala zehapen-erregimenari buruzkoa da, eta, arau-hausteen eta zehapenen tipifikazioarekin batera, kautelazko neurrien ezarpenari eta prozedurari lotutako alderdiak jasotzen ditu.

Aurreproiektuan jasotako erregulazioa aztertu aurretik, polizia-neurrien eta zentzu hertsian hartutako zehapen-neurrien artean dagoen aldea azpimarratu behar dugu. Konstituzio Auzitegiak ezarri duenez, *“ondorio juridiko batek zigor-izaera duen ala ez finkatzeko, sistema juridikoan bete behar duen funtzioa hartu beharko da kontuan lehenik eta behin. Horrela, beraz, errepresio-funtzioa betetzen badu eta legez kontrako ekintza baten ondorioz eskubideak murrizten baditu, zentzu materialeko zigorra dela ulertu beharko dugu; errepresioaren ordezkari beste justifikazio-helburu batzuk baldin badaude, berriz, zigorraren aukera baztertu egin beharko da, ondorioa kaltegarria bada ere. Horrela, beraz, ez da nahikoa ordenamenduak jarduera jakin bat egiteko ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak betebeharrak juridiko bat betetzera behartzeko (isun hertsagarriekin gertatzen den bezala) edota urratutako legeria berrezartzeko asmo hutsarekin. Beharrezkoa da eragindako kalteak, era autonomoan edo asmo horiekin batera, ordainsari-zentzu bati erantzutea, hots, betebeharrak jakin bat nahitaez bete beharrik dakarrenari erantsitako kalte bat eragitea edota eskubiderik gabe egin den jarduera bat garatzen jarraitu ezin izatea. Urratutako legeria berrezartzeak arau-haustearekin legez kanpoko onura bat (kendu zaiona) lortu nahi izan duenaren kalte dakar beti. Ordenamenduak ezarritako zigor kriminala edo administratiboa, nolana ere, ordaintzeko borondatek kanpo erantsitako kalte bat (arau-hauslea legez baliatzen zituen ondasun eta eskubideetan kaltetzen duena) eragiten denean baino ez da agertzen”* (Konstituzio Auzitegiaren 48/2003 Epaia).

Bereizketa horretan oinarrituta, aurreproiektuak bi neurri mota horiek biltzen dituela ikus daiteke:

- Polizia-neurriak, hala nola emakida eta baimenen iraungipena (37. artikulua) edota portuetako jardueraren babesari buruzko erregulazioa (44. artikulua).
- Zehapen-neurriak, VI. kapituluaren bigarren atalean jasota daudenak.

Kontuan hartu behar da bi neurri mota horiek bateragarriak direla eta zehatzeko administrazio-prozeduraren printzipio eta bermeen aplikazioak zehapen-izaera hutseko neurrietarako baino ez direla zorrotz jarraitu behar, polizia-neurriak alde batera utzita.

Zehapen-erregimenari berari buruzko erregulazioari dagokionez, gogorarazi beharra dago erregimen hori diseinatzean bete beharreko parametroen inguruan Konstituzioak ezarritako doktrina. Ildo horretan, iraunkortzat kalifika daitekeen konstituzio-ildo bati jarraiki, *“zigor-arloaren oinarritzko printzipioak, ñabardura batzuekin, zigor-arloko administrazio-zuzenbidean aplikatu behar dira, biak Estatuko zigor-ordenamenduaren adierazpenak baitira”* (Konstituzio Auzitegiaren 18/1981 Epaia).

Printzipio horien barruan, tipikotasunaren printzipioak eskatzen du arauak urraketa-jokabidearen elementu guztiak zehatz-mehatz deskribatzeko. Konstituzio Auzitegiaren arabera, *“berme materialak eskakizun bat dakar; horren arabera, arau-hauste diren jokabideak eta arau-hausteak egiten dituztenek jaso beharreko zigorraren mota eta maila behar bezalako ziurtasun-mailarekin aurreikusteko aukera eman behar du zigor-arauak”* (Konstituzio Auzitegiaren 116/1993 Epaia).

Printzipio horri jarraiki, portuetan substantziak isurtzeagatiko zehapenen tipifikazioa berrikustea gomendatzen da, ez baitirudi arau-hauste arin zein arau-hauste larri eta oso larri gisa jasotako administrazio-urraketen deskribapenak aukera ematen duenik isurketen kokapena behar bezalako ziurtasun-mailarekin zehazteko.

Halaber, 47.d), 48.a) eta 49.a) artikuluetan jasotako arau-hausteetarako formulazio baliokide bat erabiltzea gomendatzen da, arau-hauste horietan guztietan portuko jabari publikoan eragindako kalte-galerak izatea eskatzen dela badirudi ere, baina arau-hauste arinaren tipifikazioan baino ez da esanbidez jasotzen. Era berean, 47.f) eta 48.b) artikuluetan jasotako arau-hausteen formulazioak ere ez datoz bat, kasu horretan ere urraketa-jokabideak gertakari berari lotuta daudela eta gertakari horrek zehapen desberdinak portu-jardueran eragindako afekzio-mailaren arabera soilik sortuko lituzkeela baitirudi. \$\$

Bestalde, zehapenen zenbatekoei dagokienez eta espedientean inolako justifikaziorik ematen ez dela kontuan hartuta, oso deigarriak dira aurreikusitako zehapenen zenbateko txikiak, Estatuko legerian ezarritakoekin alderatzen baditugu bederen. Izan ere, Estatuko legerian zehapenen zenbatekoak 3.000.000 €-ra irits daitezke, edota, Valentziako Erkidegoan duela gutxi onartutako portuei buruzko ekainaren 13ko 2/2014 Legearen kasuan, 10.000.000 €-ra.

52. artikulua, bestalde, erantzukizuna arautzen du, eta, ezartzen duenez, *“Legear tipifikatutako gertakariak beren kasa, beste norbaitekin batera edo beste norbaitez baliatuz burutzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira arau-hausteen egileak”*. Eta, gaineratzen duenez, *“Arau-hauste baten erantzulea pertsona juridiko bat denean, erruduntasun-judizioa haren borondatea osatu duten pertsona fisikoei buruzkoa izango da. “Kasu horietan, ez da egongo arau-hauste beragatik pertsona fisiko horiei zehapena jartzerik”*.

Bi formulazio horiek EAEko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean oro har ezarritakoari erantzuten diote, eta kontraesanean daude artikulua beraren 3. puntuak egiletza finkatzeko jasotzen dituen irizpideekin. Hori dela-eta, berrikustea gomendatzen da.

Ildo horretan, komeni da Aholku Batzorde Juridikoak portuei buruzko aurreko lege-aurreproiektuaren inguruan emandako irizpenean ezarritakoa errepikatzea:

“Aurreko puntuak ilunak eta kontraesankorrak dira. Izan ere, zigor-zuzenbidean ez bezala, administrazio-zuzenbidean pertsona juridikoak arau-hausteen erantzuleak izan daitezke, eta egiletza pertsona juridikoen borondatea gauzatu duten pertsoneri edota haien kontura diharduten hirugarrenei egotzi ordez pertsona juridikoei berei egotzen zaielako gertatzen da hori. Hain zuzen ere, arrazoi hori dago Zigortzeko Ahalmenari buruzko Legearen 9.3 artikulua eta proiektuaren 62. artikulua laugarren paragrafoaren azpian.

Beste kontu bat da gertakari berak hainbat arau-hauste eragiten dituenean, beste hainbeste balio juridikotan eragin negatiboa izateagatik (Zigortzeko Ahalmenari buruzko Legearen 18.2 artikulua). Kasu horretan, hainbat erantzukizun bereizi ahal izango dira gertakari beraren inguruan. Edonola ere, 62.3 artikulua a), d) eta f) letrak idatzita dauden moduan, 5. puntuan xedatutakoarekin lotuta, ez da kontuan hartzen hainbat balio juridikoren afekzioa, bakar batena baizik. Hortaz, administrazio-arloko arau-hausteen erantzukizuna pertsona juridikoarena baino ez da izango (alegia, ez da izango pertsona juridikoen borondatea gauzatu duten pertsonena edota haien kontura diharduten hirugarrenena). Pertsona juridikorik ez dagoenean, erantzukizuna ekintza kontrolatu duenari, hau da, ekintza agintzen duenari baino ez dagokio, eta ez dira izango aginduak betetzen dituztenak, enpresaburua, eraikitzailea eta abar baizik”.

Kautelazko neurrien erregulazioari dagokionez (53. artikulua), azpimarratu beharra dago proposatutako erregulazioaren itxurazko izaera mugatzailea. Zigortzeko Ahalmenari buruzko Legean jasotako erregulazioari jarraiki organo eskudunak “prozeduraren oztopatzea eragotz dezakeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko, epaitutako gertakarien edo antzeko beste batzuen jarraipena edo errepikapena saihesteko, edota gertakari horiek eragindakako kalteak saihestu edo arintzeko beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu”, ahal izango baditu (31. artikulua), ez dira ulertzen zehapen-prozeduraren esparruan hartu beharreko kautelazko neurrien zerrenda itxiaren arrazoiak. Hortaz, zerrenda itxirik nahi ez bada, artikuluetan hori argitzea gomendatzen da.

Bestalde, 54. artikulua zehapen-prozedurari buruzko atalean jasota badago ere, kontuan hartu behar da arestian adierazi ditugun polizia-neurriei lotuta dagoela, eta neurri horiek aldatutako egoera berrezartzera bideratuta daudela eta zehapen-izaerarik ez dutela. Ordain-izaerako neurri horiei buruzkoa da, hain zuzen ere, 50. artikulua 4. puntua, eta, beraz, egokia izan liteke alderdi horiek batera jasotzea.

Aurreproiektuan bildutako erregulazioari dagokionez, gogorarazi beharra dago arauan hertsapen-isunen zenbatekoa ezartzeko beharra, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak eskatzen duenari jarraiki (99. artikulua).

b) Legegintza-teknikako alderdiak

Esan daiteke aurreproiektua, oro har, bat datorrela 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartutako lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak lantzeko jarraibideekin (Xedapen Orokorrak Lantzeko Prozedurari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriari jarraiki aplikatu daitezke jarraibide horiek).

Edonola ere, honako ohar hauek egingo ditugu, etorkizuneko legearen kalitatea hobetzeko:

- 35. artikuluan, portuko jabari publikoa okupatzeko eskubidea amaitzeko kasuak zerrendatzen direnean, iraungipena eta errebokatzea jasotzen dira, ordena horretan, eta horiei buruzko artikulua, berriz, alderantzizko ordenan. Ordena berean agertzea gomendatzen da.
- 39.3 artikulua azken esaldia 40.2 artikuluan ere jasota dago (emakiden erreskateak arautzen direnean), eta baliteke bigarren artikulua izatea leku egokia, bi artikuluetan errepikatu behar izan gabe.
- Autonomia Erkidegoaren aipamenak bateratu egin behar dira gaztelaniaz, "Comunidad Autónoma del País Vasco" zein "Comunidad Autónoma de Euskadi" terminoak erabiltzen baitira.
- Eta gauza bera gertatzen da "pasajeros" eta "viajeros" kontzeptuekin. Bata zein bestea erabiltzen denez gero, termino bakarra erabiltzea gomendatzen da. Egindako aukera edozein izanik ere, adiera maskulinoan eta femeninoan jaso beharko da.
- Itsas garraioari buruzko erregulazioan, erregulazio horretara mugatutako edukia duen lege bat balitz bezala aipatzen da legea zenbaitetan, baina hori ez da egia. 42.2 artikuluan "lege honetan arautzen diren itsas garraioko zerbitzuak" aipamena aldatzea eta, alde batetik, 47.n) artikuluan itsas garraioko enpresa operadoreen erregistroa dela eta, bestetik, 49.d) artikuluan itsas garraioko zerbitzuak direla zehaztea gomendatzen da.
- Testua berrikusi egin beharko da, portuen arloan eskumena duen Sailaren okerreko aipamenak saihesteko (eskumena sortutako entitate berriari

dagokionean). Adibidez, T-3 tasari (Salgaiak) buruzko erregulazioan gertatzen da hori. \$\$

Bestalde, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikulua behartzen duen erabilera ez-sexistaren ikuspuntutik hizkuntza zuzen erabiltzeari dagokionez, testuak bete egiten du betebehar hori, baina, gaztelaniazko bertsioan, "pasajeros" eta "viajeros" terminoei buruz adierazitakoaz gain, "los prestadores" kontzeptua agertzen da legearen zioen azalpenean, eta zuzendu egin beharko litzateke.

c) Lege Aurreproiektuaren ondorengo izapidetzea

Izapidetzeari dagokionez, lehenik eta behin Aholku Batzorde Juridikoaren behin eta berrizko adierazpenak aipatu behar dira (guztien ordez, Aholku Batzorde Juridikoaren 213/2011 Irizpena), honako hau esan baitu: *“Gobernuak lege-aurreproiektuak egiteko erabiltzen duen prozedura aztertzean, hau kontuan hartu behar da: “legegileak ez du betearazten Konstituzioa, baizik eta zuzenbidea sortzen du askatasunez, hark ematen duen esparruaren barruan, arauzko ahalmenaren erabilera Konstituzioaren eta Legeen arabera egiten baita (Espainiako Konstituzioaren 97. artikulua)” (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 209/1987 Epaia, abenduaren 22koa); horregatik, Konstituzioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak edo, batzuetan, lege organikoek izapide espezifikoren bat aurreikusi ezean —kasu egiazki ezohikoa gure ordenamenduan—, azterketa hura, funtsean, tresna bat da proiektatutako arauaren zentzuzkotasuna ikertzeko, hau da, ikusteko baliagarria den (proposatutako eduki zehatzarekin) egin denean xede dituen helburuak lortzeko.*

Hala ere, Aholku Batzorde Juridikoak honako hau ere gehitzen du: *“erreferentziatzko tresna garrantzitsu bat dugu: 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa; lege horrek, aipatutako kontuak baztertu gabe, Gobernuaren jardura bideratu nahi du, lege-proiektuak idaztean xedapen orokorrak egiteko erabiltzen duen metodologia bera baliatzeko ahalegina egin dezan. Hala, esaten du zioen azalpenean, oso ekarpen ona egiten dela legegintza-ahalmena duenaren lana errazteko, hobeto oinarritutako eta antolatutako proiektuak aurkezten baitzaizkio, nahi diren helburuak lortzeko teknika juridiko txukunago eta xede dituen helburuak lortzeko egokiago batekin”.*

Ohar horiek egin ondoren, proiektuaren izapidetzea arau horren arabera aztertuko da.

Izapidetzeari 2013ko uztailaren 31ko Aginduz eman zaio hasiera, 8/2003 Legearen 4. artikulua jasotzen duen bezala, eta uztailaren 2an, berriz, alde aurreko onarpena eman zaio landutako testuari.

Aipatutako Aginduak espedientean egon beharreko dokumentuak, aurreikusitakoaren arabera parte-hartzeko eta kontsultatzeko egingo diren izapideak eta bidezki eska daitezkeen txostenak jasotzen ditu. Horrela, beraz, arau-proposamenarekin batera honako memoria hauek aurkeztuko direla ezartzen du: Justifikazio Memoria, Memoria Ekonomikoa, Generoaren Araberako Eragina Ebaluatzeko Memoria, Administrazio Kargen Murrizketaren Memoria eta Enpresa Eraginaren Memoria.

Justifikazio-memoria eta generoaren araberako eragina ebaluatzeko memoria landu dira dagoeneko. Hortaz, dokumentu berean bil daitezkeen memoria ekonomikoa, administrazio-kargen murrizketaren memoria eta enpresa-eraginaren memoria geratzen dira lantzeko. Memoria horrek, gainera, aurreproiektuak zuzenbide pribatuko entitate publiko berri baten sorkuntza aurreikusten duen eta portuko tasei erregulazio berria ematen dien heinean, ekonomia- eta arau-kontrolaren arloan (antolamendu-aldaeran) aplikatu beharreko erregulazioak zein tasen arloan aplikatu beharrekoak eskatutako edukiei erantzun beharko die.

Erregulazioak nagusiki eraginpean hartutako administrazioen eta sektore ekonomiko eta sozialen parte-hartzea bermatuko duten entzunaldi- eta kontsulta-izapideak bete beharko dira.

Aginduak, gainera, honako txosten-izapide hauek egiteko beharra ezartzen zuen:

- EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (ekainaren 27ko 8/2012 Legearen 3.1 a) artikulua).
- Toki Administrazioekiko Harremanetarako Zuzendaritza [Euskadiko Udal Kontseilua. (uztailaren 28ko 326/1994 Dekretuaren 2.1.a) artikulua)].
- EMAKUNDE (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.-22. artikulua).
- Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerga Administrazioeko Zuzendaritza (Sail horren egitura organikoari buruzko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 17. artikulua).
- Ekonomia eta Ogasun Sailaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza (azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginaren 8.1 artikulua).
- Kultura Sailaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan duten eraginari buruzkoa, baita hizkuntza-esparruan indarrean dagoen araudira egokituta dauden erari buruzkoa ere (abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuko 2. artikulua).
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena (18 c artikulua), Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoari buruzko apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuari buruzkoa.
- Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena (Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-

kontrolari eta kontabilizatzeari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen III. Tituluaren IV. Kapitulua, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. Kapituluko 3. puntua). Organo horri espediente osoa igorri beharko zaio, memoria ekonomikoa barne.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena (espediente osoa igorri da: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua).

Txosten horiekin batera, aurreproiektuak itsas garraioari buruzko erregulazioa jasotzen duen heinean, estatu kideen barruko itsas garraioetan (itsasoko kabotajea) zerbitzuen prestazio librearen printzipioa aplikatzen duen Kontseiluaren 1992ko abenduaren 7ko 3577/92 zenbakiko Erregelamendua (EEE) aplikatuz, kontsulta egin beharko zaio Europako Batzordeari.

IV.- ONDORIOA

Txosten honetan garatutakoa azertu ondoren, txostenaren xede den Lege Aurreproiektuaren aldeko irizpena ematen da. Hala ere, aurreko ataletan egindako oharra balioestea aholkatzen da.

Vitoria-Gasteiz,

AHOLKULARITZA JURIDIKOKO
ZERBITZUA

O. E.

Sin.: María Jesús Urkiola Mendibil

Jose Ignacio Bañuelos Ibañez
ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA